II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Alkatearen dedikazio esklusiboa eta ordainsariak

Aguraingo Udalak, 2019ko uztailaren 3ko osoko bilkura berezian, udalbatzako legezko kideen gehiengo osoz, hau erabaki zuen alkatearen dedikazio esklusiboari era ordainsariei buruz:

1/ Alkatearen dedikazio esklusiboa onestea. Onespen horrek 2019ko ekainaren 15etik ditu ondorioak, egun horreta jabetu baitzen Aguraingo Udalbatzako alkate-lehendakari karguaz. Era berean, onetsi zen ordainsariak 2011.2015 eta 2015-2019 agintaldiko berak, eguneratuta, izatea; hain zuzen ere, 49.287,01 euro, Udalhitzek 2010ean 23 mailekoentzat zehaztua. Zenbateko hori Udalhitzen parametroen arabera eguneratuz gero, 51.790,62 euro da.

Zenbateko hori handitu edo txikitu egingo da Udalhitzek erabakitako gehikuntza edo murrizketen arabera.

Urteko udal aurrekontua gauzatzeko udal arauak xedatuko ditu ordainsariak, dedikazioa eta urteko aldaketei buruzko gaiak.

Korporazioko kide guztiek jasoko dute euren egitekoak betez sortzen zaizkien gastuen ordaina, hauei badagozkie: bidaia gastuak, joan-etorriak eta otordu sariak, betiere behar bezala justifikatu ondoren.

2/ Honako hau udaletxeko iragarki taulan eta ALHAOn argitaratzea.

Eta argitaratu egiten da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikuluan xedatutakoa betez.

Agurain, 2019ko uztailaren 4a

Alkatea
ERNESTO SAINZ LANCHARES

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.08.02 05:31:04 Z